

Prest!



BERBETAN: **MIGUEL ISASI** ATHLETICEKO BAZKIDEEN ABENDUKO ENBAXADOREA

ERREPORTAJEA: LOZORROAN ATSEDEN HARTZEN DUTEN HITZAK BARKUA: HERRI ZURI-GORRI BAT, ITSASADARRARI SO

2-253-254-255-256



Sustatzailea



Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



Babestu
Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak
- Helbidea
- Telefonoa
- E-posta
- Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

aurkibidea

	Itsaso Larramendi Elexgaray - Jon Zubietta		Iritzia	4
	Irune Bilbao Vidal		Gureak kanpoan	5
e	erreportajea LOZORROAN ATSEDEN HARTZEN DUTEN HITZAK <i>“Kukuizerdia” entzutean zer datorkizue burura?. Kortezubin ia lurra bustitzen ez duen eta zirimiria baino meheagoa den euriari esaten zaio. Zergatik kuku(izerdia), kukuak ez badu izerdirik botatzen?. Eta non erruten ditu arrautzak kukuak?. Beste txori batzuen kabietan. Ez du lanik egiten. Alfer butsa da. Beraz, ia ez deusa den euriari esaten zaio “kukuizerdia”.</i>			6
	Intxixu Ikastola		Eskolak	10
	Doneperriagako Maiora, dorretxeko andrea (eta II)		Behin batean	12
	Deustuko andreen aurreksua		Artikulua	14
b	berbetan MIGUEL ISASlrekin <i>Txikitatik maite izan du Athletica Miguel Isasi Deustuarrak eta 2023ko abendu- duan bazkide guztien izenean enbaxadore papera hartu zuen. Klubaren 125. Urteurrenaren kariaz jorratu ziren ekitaldien artean, esanguratsuena izan zen bazkideetako bat aukeratzea publiko zuri-gorriaren ordezarri gisa.</i>			16
	Puente de Frank Gehry (2015)		Irudiak berbetan	21
	IRAKURLEEN TXOKOA Euskarazko literatura erotikoa, bada umezurtz?			 barkua bete herba
	KIROLA Herri zuri-gorri bat, itsasadarrari so		24	
	NUTRIZIOA Ainhoa Maiztegi			
	KULTUR TXOTX Danel Lauzirika Erkiaga, Nile eta Erika			

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu

Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurreaga

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu


Diseinua: BO5T

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01



Itsaso Larramendi Elexgaray

Hiriaz eta beste

Zikinak

Mushkaa-k bere lehen diskoa atera du martxoan. 20 urteko artista kataluniarrak bi urte eskas daramatza musika publikatzen eta oso denbora gutxian izugarritzko arrakasta lortu du. Abesti ia gehienak katalanez ditu, baita bere kanta sonatuenak ere, baina izaten ari den oihartzuna zikindu nahiean edo, orain dela urtebeteko bere adierazpen batzuk aireratu dira sare sozialetan zioena gogor kritikatu. Zera zioen: *“Katalana asko gustatzen zait, baina pertsona batzuk oso oldarkorrek dira, eta badago jendea katalanez errez egiten duen arren batez ere gaztelaniaz egiten duena baztertua sentitzen delako, badakielako txarnego deituko dutela azentuagatik. Ondorioz ez dute katalanez egiten”*.


Hizkuntzaren garbizaletasuna eta zuzentasunarekiko obsesioa, gurean ere ez da gai berria.

Izan ere, orain dela gutxi, “Erresistentziak” gaiaren inguruan hitz egiteko bildu zituzten Anari eta Iñigo Astiz Biran, eta beste hainbat konturen artean, bideratzaileak galdetu zien ea zer iritzi zuten Chill Mafiako kideek beren kantuetan egiten duten euskararen inguruan. Euskara zikinaren afera. Enegarrenez. Norbaitek sakatu dezala irteera botoia mesedez. Zorionez, Astizek eta Anarik inork espero ez zuen erantzun marabillosoa eman zuten. Gaiaren inguruko inolako kezkarik ez agertu ondoren, zera galdetu zuten: baina ba al dago Ben Yart baino letragile hoberik gaur egungo euskal eszenan? Ez al da poesia hutsa *“el perrillo es mío, suyos mis ladridos”* esaldia?



Jon Zubieta

Sanitarra



Bizi garen garaioan ukaezina da testuinguruak ez duela itxaropenerako eta baikor izateko tarte handirik uzten. Izan ere, gerra, krisi, garestitze edo langabezia bezalako hitzak gure bizitzan gero eta zentraltasun handiagoa hartuz joan dira azken urteetan, eta horren ondorioz guztiok bizi gara etengabeko larrialdi-egoera pertsonal batean.

Gazteok ez dakigu biharamunean gure lanpostu prekarioetatik kanporatuko gaituzten edo kontrara, gure soldata geroz

eta miserableagoa mantentzeko aukera izango dugun, emantzipatzeko eta bizi propio bat eraiki ahal izateko aukerarekin amesten dugun bitartean. Modu berean, ez dakigu datozen urteetan lokatzez betetako lubaki batean lehertuko garen ala itsasoak gure hiri eta herriak irensten ikusteko adina biziko ote garen. Lerro berean, gero eta heldu gehiagok ez dakite hurrengo hilabetean hozkailua betetzeko gai izango diren edo euren seme-alabek unibertsitatean ikasteko aukera izango dut.



Irune Bilbao Vidal

Jatorria: Deustu

Bizitokia: Abu Dhabi, Arabiar Emirerri Batuak



“Atzerritarrek zein bertokoek baldintza ekonomiko oso altuak dituzte Europarekin alderatuta”

Noiz eta zergatik Joan zinen Abu Dhabira?

Duela hilabete batzuk Arabiar Emirerrietara etortzeko lan aukera bat sortu zitzaidan eta Europatik guztiz ezberdina den herrialde bat ezagutzeak arreta piztu zidan.

Zerk harritu zintuen gehien bertara iritsi zinenean?

Banekien bero egiten zuela, baina irailean iritsi nintzenean harritu egin nintzen tenperatura hain altuekin. Kultura mailan, erlijioarekin eta janariarekin lotutako kontuek harritu ninduten, baina azpimarratzekoa da Europan dugun irudia baino irekia-koak direla.

Zein da Arabiar Emirerri Batuen egoera sozioekonomikoa?

Oso herrialde aberatsa da, petrolio-ia izateaz gain, bere ekonomia asko dibertsifikatu duena. Atzerritarrek zein bertokoek baldintza ekonomiko oso altuak dituzte Europarekin alderatuta. Klase sozialak oso lotuta daude lan motarekin, ez ditu baldintza berak lan espezializatu bat egitera datorren atzerritarrak edo eraikuntzan lan egiten duenak... Gaur egun gasolinak litroko 0,70 euro balio ditu, Europan baino merkeagoa da.

Orokorrean, jendeak zer iritsi du Israelen eta Palestinaren inguruan?

Herrialde arabiarra da eta Palestinako estatutik gertuago dagoen jarrera dute.

Nolokoa da zure egun normal bat Abu Dhabin? Nongo jendearekin mugitzen zara? Zer hizkuntzatan bizi zara?

Denbora ardura akademikoen eta lanaren artean banatzen dut, ariketa fisikoa egiten dut eta denbora libreka dudanean hemen bizi diren atzerritarrekin egoten naiz. Hemen ingelesez hitz egiten dut.

Zein da zure esperientzia emakume moduan? Aldea dago mendebaldeko eta hango emakumeen aldean?

Egunerokoan ez dut inolako diskriminaziorik jasaten, Euskal Herrian bezalaxe egin dezaket gauza oro. Egia da bertoko emakumeak erlijioaren arabera janzen direla, baina harritu nau ez dela herrialde hain itxia, ez guk uste dugun beste behintzat.

Zelan bizi izan duzu Ramadama? Eragina izan du zure bizimoduan?

Bai, Ramadanak maila guztietan eragiten du. Egunez hiria gelditzen da eta zerbitzu asko ixten dituzte, hilabete honetan jendea gaez bizi da.

Zer egitea gustatzen zaizu?

Herrialdean zehar bidaiatzea eta toki berriak bisitatzea gustatzen zait. Hemen ezagutu dudan jendearekin ateratzea eta batzuetan parranda egitea ere gustuko dut. Ia hotel eta klub guztietan alkohola eskaintzen dute, baina Euskal Herrian baino askoz garestiagoa da.

Abu Dhabira joan aurretik beste leku batzuetan ere bizi izan zara.

Bai, bi urte bizi izan nintzen Cádizen. Ezberdina da, Cádizen eta Euskal Herrian bizimoduak antzekoak dira, hemen guztiz ezberdina da; baina, pozik nago hemen, esperientzia berri bat bizitzen.

Deustura bueltatzeko gogoz zaude?

Deustura itzultzea gustatzen zait familia eta lagunak ikusteko, baina momentuz ez dut itzultzeko presarik. Aukera badut, leku berriak bisitatzea gustatuko litzaidake.

Zer duzu faltan? Eurria, akaso?

Familia, lagunak eta eurria, noski. Bizi izan ditudan bi lekuetan (apenas) egiten du euririk.



LOZORROAN ATSEDEN HARTZEN DUTEN HITZAK

“Kukuizerdia” entzutean zer datorkizue burura? Kortezubin ia lurra bustitzen ez duen eta zirimiria baino meheagoa den euriari esaten zaio. Zergatik kuku(izerdia), kukuak ez badu izerdirik botatzen? Eta non erruten ditu arrautzak kukuak? Beste txori batzuen kabietan. Ez du lanik egiten. Alfer hutsa da. Beraz, ia ez deusa den euriari esaten zaio “kukuizerdia”.

Testua: Katalin Gaztelu

Argazkiak: Xabier Badiola

“Kukuizerdia”, “lankarra”... , halako hitzetatik ibilbide eder bat egin du Kepa Diegezek bere azkeneko liburu edo hobe esanda, saiakera nobelatu honetan. Kepa Diegez, hizkuntzalaria eta euskal ikerketan doktorea ere bada eta esan bezala, eguraldiari lotutako ikerlan, artikulu, liburu eta hitzaldi ugari eskaini ostean, *Eguraldiaren Euskara. Aro bidea Euskal Herrian berrena* liburua dakar besopean. Kepak dionez, Eguraldiaren euskara bere 6.000 berbako datutegitik jaiotzen den bidaia baten emaitza da. Abiapuntu dokumentala doktorautza tesi bat eta 6.000 berbako datutegia izanik, saiakerari kontakizun edo istorio zantzua emateko, liburuan azaltzen diren

1.100 hitz eta 96 herrietatik barrena bidaian doan pertsonaia fiktizio baina izaera mitologikodun bat sortu zuen. Getxotik hasi eta Eskiularaino haizeak daraman pertsonaia. Gutxi dira, inor ez esatearren, hizkuntza batean eguraldiari lotutako hiztegi guztia aztertu dutenak. Kepak berak, tesia amaitu zuenean pentsatu zuen erabilitako corpusa hiztegi bezala erabiliko zuela baina azkenean, publiko zabalera heltzeko edo irakurle gehiago erakartzeko asmoz, kontakizuna eta istorio dituen saiakera nobelatua idaztea erabaki zuen. Eguraldiaren Euskara Hiru eratarira irakur daitekeela dio idazleak: Hasi eta buka istorio bat duelako, intereseko herria bilatu eta



horri dagokiona irakurriz edo aurkibidean hitza topatu eta bertara joz.

Jon Gerediaga berriz, kukuizerdiari buruz idazteko Kortezubira joan beharko litzateke eta bertatik bertara idatzi bere poema. Argi du poesia idazteko apur bat ornitologoa, apur bat botanikoa eta beste hamaika “apur” behar direla eta tartean, filosofia irakaslea da, antzerkia idazten du maiz eta duela 20 urte baino gehiagotik etxe edo idazteko modu gisa ulertzen du poesia.

Zeru-lurren libururekin 2023ko Irun Hiriko Literatura Saria jaso zuen poesia euskaraz atalean eta poesia liburu ugari baditu ere, bere azkenekoetan bezala, honetan ere, natura, gizakia eta haien arteko harremana dira ardatz nagusiak. Motxilan dakarren Gaston Bachelard filosofoaren “La tierra y los ensueños de la voluntad” liburuak poesiako imagina poetikoak edo poesian agertzen diren irudiak nondik sortzen diren azaltzen du; batzuk lurra osagai nagusi duen irudimen batetik, beste batzuk uretik, airetik, sutik... Elementu bakoitzetik ateratzen den irudi poetikoa aztertzen du beraz eta *Zeru-lurren liburuan*, Jonek ere, Gaston Bachelarden antzera, naturaren behaketatik abiatzen den hausnarketa poetikoa

egiten du. Harira, izateko modu bezala ulertzen du poesia eta berau idazteko, natura behar du. Batzuk meditazioa egiten duten bezala, Jonek poemak idazten ditu. Normalean naturari begira eta naturaz inguratuta. Horrela, uler dezakegun natura dela Jonen poemaren osagai nagusia baina aldi berean oso argi du idazleak, paisaia bati buruz hitz egitean, paisaia hitzen bidez deskribatzean, beti ari dela gizakiari buruz ere zerbait esaten. Hitzak gizatiarrak direlako. Beraz poesia naturari begira egiten du baina gaia beti da bizitza. Bizitza eta haren osagaiak; heriotza, maitasuna eta bizia bera. Burura etorri zaion Miguel Hernándezen poemak dioen bezala: “con tres heridas yo; la de la vida, la de la muerte, la del amor”.

Bai Jon eta bai Kepa eguraldi zaleak dira. Kepak eguraldi kaskarra maite du eta Jonek, eitbn eguraldia entzutea. Andoni Aizpuruk eguraldi saioetan edo Jakoba Errekondok “Landaberrri” saioan erabiltzen dituzten hitzak entzutea alegia.

Euria jausten ikustearen antzera, Kepak dutxan, ohean, zerari begira, besteari begira... burura etortzen zaizkionak apuntatu egiten ditu eta hitzen eta hiztegiaren sinesle leiala da. Honen ustez, hitzen bidez islatzen da

nolako kultura dugun eta lexikoan eta bereziki naturari dagokion lexikoan dugun altxorraz jabetu behar gara: “Erreka ertzean zaudela, lanbro hotz bat agertzen bada baina ez baldin badakizu horrek ze izen daukan ez duzu lanbroa ikusten, ez duzu identifikatzen. Izen bat behar duzu eta izen horrek emango dio nortasuna. Izenak emango dio izana”.

Kepa Diegezek borondatezko jubilazioa eskatu du txikitatik zaletasun duen hori, lan bihurtzeko. Tesia osatzerakoan bazterrean utzi zuen materialarekin zertxobait egiteko


asmoa du aurrerantzean. *Eguraldiaren Euskararen* aipatu besterik egiten ez dituen gai batzuk sakonean jorratzea da asmoa; mitologia eta lexikoa, eguraldiari antz emateko metodoak, elurra dela eta erabiltzen diren terminoak, urteroen inguruko zerbait besteak beste. azken finean. Berbak ez direlako galtzen, lo zorroan geratzen dira eta baten batek iratzartzen ditu. Kasu honetan nik.



Kepa Diegez

EGURALDIAREN EUSKARA

ARO-BIDAIA
EUSKAL HERRIAN BARRENA



ALBERDANIA



Poesiatik saiakeraren mundura igaro da poeta. Betiere, poesia baztertu gabe. izan ere, poesia-
ren beste aurpegiari buruzko saiakera idazten ari da Jon Gerediaga azken aldian. Lanaren lehen zatian, poesiaren maila teorikoan gehien estimatzen duen hitz poetikoari buruzko saiakera bat idazten ari da. Hala nola ze maisu-maestra gustatzen zaizkion, zergatik, nola bilatzen den hitz-poetikoia, ze ezagurri dituen hitz poetiko horrek, ze oztopo aurkitu dituen bidean, nolakoa den prozesua... . Bigarreanean ordea; saiakeraren bigarren zatian, hitz poetikoaz haratago mintzo da; arrazoimenari eta arrazoi politikoari buruz alegia. Pentsatzeko eta sentitzeko modu poetiko bati buruz, poesiak eta mitoek, bizitzarako balio duen jakintza edo ezagutza mota bat ematen digutelako. Beraz laburbilduz, lehenengo zatia hitz poetikoaren inguruko saiakera bat izango da eta bigarreana arrazoi poetikoari buruzkoa.

Bai Jon eta bai Kepa klub berekoak dira. Ikuspegi desberdinez, eremu berean aurkitzen dira eta antzeko gaiak tratatzen dituzte euren lane-tan. Badago *Eguraldiaren Euskara*ren zerbait *Zeru-lurren liburua* eta alderantziz.

Bai Jonek eta bai Kepak, lo zorroan atseden hartzen duten hitz horiek itzartu dituzte.





GORA KORRIKA TXIKIA!

Jendetzaren zalapartak airea betetzen zuen, emozioz eta bizitasunez blaitutako burrunba etengabea. Intxixu Ikastolan, Korrika Txikia puripurian zegoen. Ospakizun eguna zen, txoko bakoitzean euskara jariatzen zen, istorioak elkartuz eta konexio giro paregabea sortuz.




Testua eta argazkiak: Intxixu Ikastola

Familia osoak biltzen ziren errepideetako alboetan umeei lekukoaren atzetik ilusioz lasterka zihoazen haurrei arnasa eta indarra emanaz. Guraso-laguntzailerek zein irakasleek umeen eskuei eusten zieten, karreraren garrantzia ez ezik, haien hizkuntza eta kultura zaintzeko eta sustatzeko balioa ere transmitituz.

Haurrak hunkituta zihoazen korrika, Korrikaren lekukoa zeramatela, garrantzi eta konpromiso sinboloa. Bere barreak jendartean entzuten ziren, espazioa energia kutsakorrez betez. Irribarrez argiztaturiko aurpegiak beraiek baino handiagoa zen zerbaiten parte izatearen harrotasuna islatzen zuten.

Ibilbidean zehar, euskarazko elkarrizketen soinua entzuten zen, identitatea eta hizkuntza-aniztasuna ospatzen zituen hitz-sinfonia gisa. Korrika Txikia ez zen bakarrik lasterketa bat, itxaropen adierazpen bat zen, hizkuntzarekiko eta euskal kulturarekiko maitasun adierazpen bat.


Intxixu Ikastolan, jendetzaren erdian, pertsonen arteko lokarri ikusezinak ehuntzen ziren, bihotzak helburu komun batean elkartuz. Eta horrela, barre, hitz eta pauso azkarren artean, Korrika Txikiak bere bidea egiten jarraitzen zuen, gure herentzia linguistiko eta kulturala bizirik mantentzearen garrantzia gogoraziz.



Amaieran, zorionsu bezain nekatuta geundela, festa handi batean bezala elkartu ginen Levante plazan. Lekukoa, kilometroz kilometro eskuz pasatu ondoren, arreta gune bihurtu zen. Denok espero genuen mezu ezkutua aurkitzeko unea, lurpetik ateratzeko altxorra balitz bezala. Eta azkenean agertu zenean, argi batek gure aurpegiak argituko zituen, Korrikak elkarrekin indartsuagoak garelako erakusten digula ulertuta.

Betiko kantuak gure bihotzetan entzuten ziren, eta ezin genuen ekidin momentuko alaitasunak eraman gintzala. Besarkatu, barre egin eta dantza egin genuen, une honetan, Levante plazan, familia handi bat

garelako, gure kultura eta lurrarekiko maitasunak elkartuta. Korrika Txikia amaitzen da, baina hemen sentitzen ditugun energiak eta loturak betiko iraungo dute gure oroitza-petan.




GORA KORRIKA TXIKIA!!





DONEPERIAGAKO MAIORA, DORRETXEKO ANDREA (ETA II)

Aurreko zenbakian Deustuko Doneperiaga dorretxeiko ugazabandrea ekarri genuen hizpide, Maiora San Pedro alegia. Hilabete honetan berarekin jarraituko dugu, ontzigintzan egin zuen jardueraz jakin nahian.



Deustu 1545ean. Ibaizabal ibaia eta ontziak ageri dira.

Testua: Hektor Ortega

Martxoko aldizkarian bezala, oraingoan ere Manu Ugartetxea ikertzaileak egindako lanetik edango dugu, gehien bat, idazlan hau osatzeko. Aurrekoan esan genuen bezala, “Noticias sobre el capitán Nicolás de Arteita” artikulua interneten dago nahi duenarentzat eskuragarri.

Maiora San Pedro XV. eta XVI. mendeen arteko kantoian bizi izan zen eta Doneperiagako dorretxeiko andrea izan zen. Dorre hura elizaren alboan zegoen eta segurutik, hari zor zion izena, sasoi hartan elizari Done Peri (San Pedro alegia) esaten baitzioten herritarrek. Ez dugu bere aitaren aldeko leinuaren berririk aurkitu, baina dorretxea, itxura guztien arabera, haren bidez heldu zitzaion. Amaren sendia, berriz, Begoñako Legizamondarrak ziren, alegia, Begoñako elizako patroiak, Bizkaian itzal handiko leinu feudala.

Bizkaiko gizartearen goiko erpinetik nahikoa hurbil zegoen, beraz, Maiora San Pedro. Bere lehenengo aitagarreba, Deustuko Martin Ibañez Leuzarrakoa, Bizkaiko gizon aberatsenetakoa zen, nabigazioari eta ontzigintzari esker. Bada, Maioraren bigarren senarraren bidez jakin dugunez, deustuar emakume hura ere ontzigintzan aritu zen.

Erregeren ontziak

Baina nor zen, bada, bigarren senar hura? Nicolas Arteita lekeitiarrak nabigazioan, ontzigintzan, burdinaren merkataritzan eta bestelako kontuetan jardun bazuen ere, historiara igaro da garai hartako Gaztelako itsas-armadaren hornitzaile nagusietako bat izan zelako. Besteak beste, Carlos erregea Alemaniara joan zenean enperadore izenda zezaten, Arteitak antolatu zituen joateko eta itzultzeko on-

tzidiak. Eta Fernando Magallaesen espedizioaren hornitzaile nagusia ere, bera izan zen, Sevillako Kontratazio Etxearen bidez. Jakina denez, hura da munduari bira eman zion lehenengo bidaia, Juan Sebastian Elkano getariarra buru.

Bazen nor, beraz, Maioraren bigarren senarra, garai hartako jendartean. 1521ean erregearentzat lau ontzi berri egiteko agindua eman zioten. Lana bere gain hartu zuen eta ontziak egiten hasi ziren, Deustuko ontzioletan, baina Artietak berak gutun batean kontatu zuenez, “Maiorak hartu du ontziak egiteko ardura”, bera Deustutik kanpo zebilelako, Burgosen lehenengo eta Pasaian gero.

Maiora San Pedroren ardurapean, beraz, Deustuko ontzian laurogei gizon ibili zen beharrean ontziok egiteko. Luze gabe, Artietak hiru ontzi gehiago egiteko enkargua jaso zuen. Ontzi haiek Moluka uharteetara bidali nahi zituen enperadoreak, sotoak espeziaz beteta itzuliko ziren itzaropenaz. Haiek ere Deustuko ontzian egin zituzten eta Elkanok Moluketara gidatutako espedizioan parte hartu zutela ematen du. Alegia, Elkano hil zen espedizioan.

Maiora San Pedrok eta Nikolas Arteitak Deustun egin zituzten ontzi haiek. Zalantza barik, gaur egun Botikazarreko parkea dagoen eremuan eraiki zituzten. Sasoi hartan hura hareatza zen, gehienbat, paduraz eta haritziz inguratuta. Ogena esaten zioten eremu hari, eta han zeuden herriko ontziola gehienak. Han zazpi ontzi egin zituzten XVI, mendean, erregeren zerbitzurako, tartean galeoi ospetsuak, sasoi hartako teknologiarik aurreratuenak. Hala ere, ontziola berbarekin ontziak egiteko leku huts bat ulertu behar dugu, azpiegitura gutxi-gutxi batzuekin. Badakigu XVI. mendean, Ogenan Madariaga dorretxearen ontziola zegoela, herriarena (herri-lurrak zirenez, edonork -deustuarra izanik- erabil zezakeen ontziak egiteko) eta... Doneperiaga dorretxearena. Alegia, Maiorarena... eta haren ondorengoena. Izan ere, bere loba San Pedro Arbieta 1569ko agiri batean aurkitu dugu Ogenan ontzia egiteko ardura bere gain hartzen.



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



POZTASUNA ZEIN TRISTURA GORDETZEN DITUEN AITA MARI

Testua: Katalin Gaztelu

Aita Mari, Euskal Herriko itsasoa zeharkatze-ko sortu zen atunontzia eta gaur, 1.500 bizitza erreskatatu eta 60.000 pertsona lagundu dituen, mediterraneo osoan zehar nabigatzen dabilela jakin badakigu. Pasa den otsaileko misioaren ostean, pare bat hilabete Euskal Herriko uretan pasatu ditu hurrengo misiorako prestatze aldera eta apiril amaieraraino Bilboko Itsas Museoren parean egon da porturatuta. Bertan izan ginen Leire Motrico komunikazio arduradunaren aholkuzuzenean, jorratzen ari diren erlojupeko borroka ezagutzeko. Itsasontzira egindako bisitak agerian utzi zuen nolakoa den egunerokotasuna laguntza humanitariorako bideratutako itsasontzi batean. Zeintzuk konplexutasunak eta abar.

Aita Mari Getariko arrantza ontzi bat zen, atuneroa. 2017an SMH (Itsas Salbamendu Humanitarioa)k erosi zuen mediterraneo zentrolean asistentzia humanitarioa ematen hasteko. Erosi eta euren beharretara moldatu zuten itsasontzia, José Maria Zubia “Aita Mari” marinelaren izena berenganatuz. “Itsas Salbamendu Humanitarioa” Gobernu Kanpoko Erakundeak Mediterraneoko

uretan jarduten du eta Itsas zabalean, natura-
ren ezbeharrei aurrera egiteaz gain, gobernuen zentzugabekeriaren aurka ere borrokan ibiltzen da. Izan ere, gosea, indarkeria, pobrezia, eraso eta beste hainbat zorigaitzetik ihesi, noraezean euren bizitza arriskuan jartzen duten milaka pertsonen laguntza ematen die Aita Marik.

Esfortzu ekonomiko eta psikologikoa betiere haintzat hartuz, laguntza eman baino lehen eta laguntzaren atzetik esfortzu handia dago. Asistentzia humanitariorako ontzi bat izaterakoan eta ibilbide markatua jarraitzerakoan, zona konfliktiboak identifikatzen dituzten hegazkinen abisua jasotzen dute. Momentuoro, Italiako, Maltako, Libiako eta Espainiako agintariei gertatzen ari denaren berri emanez, laguntza ematen hasi baino lehen, laguntzak iraun bitartean eta ondoren. Askotan erantzunik gabe, itsas araudiaren arabera jokatu, eta, behin laguntza emanda portu seguru baten eskakizuna egiten dute. Portu segurua pertsona baten eskubideak errespetatzen dituen herrialde baten portua izango litzateke baina azken misioan adibidez, Italiako epaimahaiak ezarri zuen Libia ez zela portu edo herrialde segurua eta beraz, eskubideak errespetatuko ez diren leku batera bueltatzeko debekuaren araua jarraitu eta azkenik, Italiaren azpizokoa jausi eta Ortonako portura joan behar izan ziren. Euren kokapenetik 5 egunera zegoen portura hain zuzen. Bidaien luzapena edo urruneko portuen eskaintza, Gobernuak Gobernu Kanpoko Erakundeen) baliabide, erreskurto eta denbora murrizteko erabiltzen duten urruneko portuen estrategiaren eredu argia dira. Era berean, erreskatatutakoen sufrimendua eta ondoeza beharrik gabe luzatzea eragiten du.

“Ametsetako” Europara heltzearen prozesua ixteak eragiten duen poztasunak eta asilo eskaeraren prozesu luzea irekitzearen ondorioek eragiten duten tristurak bat egiten dute Aita Marik. Bat egiten dute bisitarien eta itsasontzia bera aurrera eramaten duen guztien poztasun zein tristurek.





Testua: Bihotz Alai Dantza Taldea

Aurten 25 urte bete dira Deustuko aurreskua bir-sortu zenetik. Denbora honetan deustuarrok geure burua zoriontzeko bezalako ospakizun jendetsua egin dugu urtero Done Petri plazan.

Antzina ahaztutako dantza hau berreskuratzeko erabakia Bihotz Alai dantza taldekook hartu genuen helburu bi gogoan:

Egungo egoera beste bat izan arren, garai batean oso ohikoa zen dantza mota hau Euskal Herri osoan. Deustun bereziki, eta XIX.eko kronika batzuk jasotzen duten bezala, garrantzi handia zuen jaietan andreek ateratako aurreskuak. Ohitura hori berpizte aldera, artxiboetan ahaztuta zeuden musika zaharrak aztertu eta aukeratu ondoren, euskal dantzetan erabiltzen diren pausuetatik aproposalak hautatu genituen dantza zati bakoitzerako. Horrela eratu zen plazan urtero ikusten dugun ondare kulturala osatzen duen gure aurreskua. Dantzas haratago, jaiaren helburua mota guztietako auzokideen partaidetza sustatzea da, nor bere moduan. Horrela plazan begira dagoena ere ez da ikusle soila eta ospakizunaren zati garrantzitsua ere bada.

Pertsona askoren ahaleginari esker ibili dugu 25 urte hauetako bidea: batzuk dantzan, beste batzuk musikan, beste batzuk udal korporazioa osatzen... Bai eta antolakuntza lan garrantzitsu eta ikusezina egiten dutenak ere.

Aurrera begira gure aurreskuak baditu hainbat arronka:

Gauzak berez sortu eta antolatzen ez direla ikusita, Deustuko aurreskuaren biziraupena urtero antolatzen duen erakundearen ardura da. Ezinbesteko erakunde kudeatzaile hori borondatezko langile kopuru nahikoak osatua egon behar da. Pertsona horiek aurreskuari buruzko ezagutza eduki behar dute, eta gai izan behar dira gazteago direnei transmititzeko, haiek etorkizunean ardura horrekin

jarraitu ahal izateko. Aurreskuaz arduratuko den erakundeak taldean lan egin beharko du, ekintza aurrera eramateko beharrezko baliabideak izan behar ditu eta ingurune sozialean onartua izan behar du. 25 urte hauetako esperientziak irakatsi digu aurreskuaren biziraupena antolatzen duen dantza taldearenera lotuta dagoela. Horregatik, beharrezkoa da dantza tradizionalaren kontserbaziorako dantza taldeei laguntza ematea, baliabidez hornitu eta protagonismo eta eragin soziala ematea.

Amaitzeko, esan behar da aurreskuaren ekimena urtez urte burutu dela ehunka pertsonen aldeko jarrerari esker. Baina aurreskuaren berririk ez daukaten beste deustuar asko daude. Gu guztien ardura da ekimen honen ospea auzokide guztien artean zabaltzea.

Gora Deustuko aurreskua!



berbetan

MIGUEL ISASIrekin

ATHLETICEKO BAZKIDEEN ABENDUKO ENBAXADOREA

“Loteria tokatzea hobe dela dionari esango nioke

2023ko abenduan txikitatik hainbeste maite duen Athleticeko bazkide guztien izenean enbaxadore papera hartu zuen Miguel Isasi Deustuarrak. Klubaren 125. Urteurrenaren kariaz jorratu ziren ekitaldien artean, esanguratsuena izan zen bazkideetako bat aukeratzea publiko zuri-gorriaren ordezarri gisa.



sentimendu honek balio duena ezin daitekeela diruz erosi”

Abenduan athleticeko bazkideen enbaxadore izendatu zintuzten. Nolatan? Zer suposatu zuen zuretzako horrek?

Mirari bat izan zen. 2023ko azaroaren 30a zen eta siestan nengoela Athleticekoen telefono deia jaso nuen enbaxadore izatea tokatu zitzaidala esanez. Bazkide guztien arteko zozketan ni irten nintzen eta egun euritsu eta gris hura bat-batean kolorez bete zen. Ibaigenera hurbildu nintzen oso urduri eta bertan argazkia atera eta pare bat gauza azaldu zizkidaten.

Abenduaren 16an Atletico Madrilen aurkako partida egunean, zelaira salto egin nuenenean ezin nuen jendartera bururik altxatu. 48 mila pertsona txaloka ikusi eta entzuteak ustekabeen harrapatu ninduen. Iker Muniainen albotik zelai erdiraino hurbildu nintzen, Iribarrekin topo egin arte. Intsignia bana jarri zidaten eta Jon Rahm golflariari eskua luzatu nion. Egun hura harrotasunez gogoratzen dut, mirariz.

Hala eta guztiz ere, jendeak galdera hut-salak egiten zizkidan; palkora gonbidatu al zaituzte? Eta bazkaltzera? ...Ez duzu nahiago lotería tokatu izana?

Loteria tokatzea hobe dela dionari esango nioke loteria gasta dezakezula, hau inola ere ez. Bizitza osoan zehar iraungo du niregan eta sentimendu honek balio duena ezin daitekeela diruz erosi.

Norekin partekatzen duzu zaletasun hori?

Lagun batekin. Gasolindegia batean egiten nuen lan eta bertako lankide eta lagun dudana batek jakin-mina eragin zidan. Batera egoten gara beti eta San Mamesen ez ezik, orain dela 40 urteko Bartzelonako finalean, Bucaresten, Valentzian... ere izan gara.

Sevillara ordea ez zara heldu, non ikusi zenuen finala?

Ez zitzaidan Cartujara sartzeko sarrera tokatu eta zelaira sartzerik gabe, ez nuen Sevillara joan nahi. Hotela geneukan hartuta baina bertararte heltzea suposatzen zuenak alpergura ematen zidan. Hala eta guztiz ere, dirutan eta osasunetan aurreztu dut horrela eta pozik nago kopa etxera ekarri dugulako. Deustuko taberna batean ikusi nuen finala. Oso urduri nengoan baina betiere lehoienganako konfiantza mantenduz.

Eta Gabarra nondik ikusi zenuen?

Lagun batek Portugaletara joatera animatu ninduen. Banekien Bilbo eta Deustu jendez gainezka egongo zirela eta haraxe joan ginen. Primeran ikusi genuen Portugaletetik.

Duela 40 urteko Gabarra eta aurtengoaren artean zer desberdin? Nola gogoratzen duzu?

40 urte atzera, Bilbo beste mundu bat

“Zelaira sartzerik gabe, ez nuen Sevillara joan nahi. Hala eta guztiz ere, dirutan eta osasunetan aurreztu dut”



berbetan

MIGUEL ISASlrekin

▷ ▷ SAKONEAN

Gustatuko litzaidake emakumeen futbolak behar duen onarpena izatea

Enbaxadore gisa, bazkide guztien izenean zerbait esan edo nabarmendu beharko bezenu, zer izango litzateke?

Lehenik eta behin afizioari zuzenduko nintzateke eskerrak emateko. Athleticzale izateak suposatzen duen ohorea nabarmenduko nuke itzelak garella esanez eta itzela gure taldea. Hori bai, jokalariei umiltasun apur bat eskatuko nieke.

Zein izango litzateke zuretzat ametssetako lorpena, Athleticekin betetzea gustatuko litzazukeen amets bat?

Gustatuko litzaidake aurtien UEFA jokatzeko badu, finalera iritsi eta san mamesen ikustea. Horrez gain, Klubeko agintari eta zuzendariak hurbilekoagoak izatea eta emakumeen futbolak behar duen onarpena izatea. Berdintasuna eta aintzatespena.



zen, etzuen gaurkoarekin zerikusirik. Erreka oso zikin zegoen eta beste garai bat zen hura.

Aurtengoa politagoa izan da, garbiagoa, postaletan agertzeko aproposa.

Ez da San Antoneraino heldu, ez dakit ondo zergatik. Hori ere desberdina da.

Bazkideen enbaxadore izateak ezagun egin zaitu Deustun?

Bai deustun eta bai deustutik at ere bai. Lekeition ibiltzen naiz eta bertakoek ere kaletik gelditzen ninduten galdezka.

Enbaxadore izatea tokatu zitzaizunean argazki bat eraman zenuen Ibaigenera, zein zen?

40 urte bete nituenean anai-arrebek Norvegiara bidaiara oparitu zidaten eta

hegazkineko joan etorria Athleticceko jokalarien hegazkin berean egin nuen. Argazkian Roberto Rios, Athleticceko jokalaria ohia eta Mikel Lasa, jokalaria baita nirekin batera agertzen dira.

Athleticzale amorratua zaren aldetik, afizioak ze garrantzi du?

Harrotasuna da hitza. Munduko afiziorik onena daukagu. Aldi berean, uste dut Athleticcek batzen dituen milioi bat pertsona, palestinarako edo ukrainiarako gerrak gelditzekeo edo beste hainbat kausarako batuko bagina, izugarria izango litzatekeela.

Futbolak batzen gaitu baina bereziki Athleticcek. Sekulakoa da gurea. Esan bezala, munduko afiziorik onena gara. Onenetan bagaude, txarrenetan hare gehiago eta indartuago egonen gara.

Jokalaria udalera heldu zirenean, Asier Villalibre euskararen aldeko aldarrikapenean bota zituen hitzen inguruan zer duzu esateko?

Pena dut euskara ez dudalako menperatzen. Saiatu izan naiz ikasten baina ezin.

2009tik, bost final jokatu dituzte gizonak, eta guztiak galdu.

Errekonozimendu bera izan beharko luke. Soldaten desberdintasun neurrigabeekin gertatzen den gauza bera. Orokorrean futbol jokalariek kobratzen dutena gehiago da. Zentzugabekoa iruditzen zait futbolak mugitzen duen diru mordoa. Azken finean, futbolak kirola izateari uzten dio negozio bihurtzeko eta saiatu beharko ginateke hori aldatzen. Futbola kirola da, ez negozioa.

Athleticen etorkizunari dagokionez, ze arriskustan duzu zuk?

Orain Txapeldunen Ligara heltzeko aukerak ditugu. Hala eta guztiz ere, uste dut Athleticcek ezinhobe bete duela bere lana Kopa irabaziz. Raul Garcia eta Iker Muniain kapitainari agur esan beharko diegu eta eskerrak eman hainbeste urteko lanagatik. Aldi berean, hainbeste eskaini digun eta are gehiago eskainiko digun Nico Williams esaterako, zaindu eta mantendu beharko dugu etorkizunari begira.

“Futbolak kirola izateari uzten dio negozio bihurtzeko”



Hala eta guztiz ere, Athleticen funtsezko oinarrietako bat euskara izateak harro mantentzen gaitu.

Athleticeko emakumezkoen taldeari onarpen eta esker onik ezak eztabaida eta kexak eragin ditu aurten ere. Izan ere, andrazkoek 2014an irabazi zuten azkeneko Kopa.



KULTURA

Raisa Álava artistaren erakusteka

VITREOn aurkeztu du Raisa Álava artistak bere erakusteka apiril honetan. Deustuko Luis Power kalean zabaldu berri den Belvedere Agency Artotekaren eskutik, raisa alavaren erakusketa. Artistak bere obra azaldu eta Artotekak bere proiektua ezagutzera emango du.

Artoteka tokiko arte garaikidea zabaltzeko eta bitartekaritza artistikorako plataforma bat da. Bere helburua arte garaikidea kolektibo, pertsona eta eguneroko espazioetara hurbiltzea da.

RAISA ÁLAVA
IN VITREO /
DEL 04.04 AL
04.06 / BELVE
+ ARTOTEKA

KULTURA

Pabelloi 6ko Antzerki arineko jardunaldiak

Udaberriarekin batera, antzerki arineko jardunaldiak iritsi dire pabellon 6era. Martxoaren 29tik apirilaren 28ra bitartean egongo dira ikusgai antzerki arinak. Parte hartzaileei dagokioenez emakumeen presentzia aregotu da aurren; jardunaldian parte hartuko duten 38 pertsonetatik 23 emakumezkoak izango dira. Sarrerei dagokionez, bi bonu mota egongo dira. Bi pieza ikusteko bonu itxiak 10 eurotan eta eguneko pieza guztiak ikusteko bonuak 17 eurotan.



KULTURA

Gernika memoriaren lekuko

Bilboko ibarrekolanda BHI-ko ikastetxeak "Sarri min ematen du akordatzek" eman-kizun multi-disziplinarra egin du: olerkia, musika, dantza... uztartuz. Bertako ikasleak dira protagonistak, Joseba Sarrionaindiaren laguntza izan dute gidoian eta Igor Martin de Vidales da zuzendaria. Aurretik Bilboko Loraldia festibalean aurkeztu dute eta apirilaren 16an Gernikako Lizeo antzokian emankizun bikoitza egingo dute: goizean bat bertako ikasleentzat eta arratsaldean, publiko guztiarentzat.



KIROLA

LASTERKA ASKATASUNERA. Maiatzaren 18an Bilbon

Adi gazte eta ez hain gazte.
Adi kirolari eta ez horren kirolari.
Adi Deustuar euskaldun oro!
Matxingorritik notizia freskoak ditugu.

Heltzear da Bilboko erdigunea alderik alde hartuko duen ekimena. Bizkaiko 11 gazte konpartsa batu gara, gazteon aisialdiari oinarri eta kirola bide Euskal Herriar oro batzeko. Maiatzaren 18an Lasterketa bat antolatuko dugu, Askatasunaren aldeko lasterkera, independentziaren eta balio eraldatzaileen aldekoa.

Izen-ematea zabalik da: labur.eus/lasterka24 estekan.
Bi formato egongo dira: luzea (10 km) eta laburra (4.5 km).

Korrika egingo dugu, era osasuntsu batean, lehiakorra delako.
Korrika egingo dugu, atzera begiratuta ere, aurrera goazelako.
Korrika egitea korrika egitea baino askoz gehiago delako.
Lasterka Askatasunera ere lasterketa herriko bat baino askoz gehiago izango da.



MAIATZAK 18 BILBO

LASTERKA ASKATASUNERA

LASTERKETA 4.5KM 10KM

AZOKA

BAZKARI HERRIKOIA

ELEKTROTCHARANGA

...eta gehiago!

QR code

Eman izenaf labur.eus/lasterka24


@X @lasterka_ask

ZIZPA - MAKUEN - PIKUTARA - ARKOTXA - PATXIKU - MATXINGORRI
AIKO - KASKAGORRI - URIBARRIKO GK - SANTUTXUKO GA - ALGORTAKO GT

BIZKAIKO GAZTE KONPARTSAK

berria hamaika BOGA

Animatu eta ez galdu aukera!



Urtea: 2015

Txema Luzuriaga

Puente de Frank Gehry

Apiril honetan Desutuko beste zubi bat ezagutuko dugu. Itsasadarrean baizik, kanalaren bi zatiak lotzen dituen. Frank Gehryren zubia hain zuzen ere. Frank Gehry, Guggenheim museoa egin zuen arkitekto kanadiarraren omenez sortu zen eta Julio Urkixo kalea eta Erribera lotzen ditu.

Deustuko kanala induskatzen den aldi berean eraiki zen.

2014ko urriaren 25ean, Ghery bera izan zen lehen harria jartzeaz arduratu zena, horrela proiektua besoetan hartuz. 2014ko abenduaren 22ko goizaldean bertan hasi ziren Botika Zaharraren ingurura iristen zubiaren egitura osatzen zuten piezak.

Irudian ubidea oraindik itxita eta palmondoaren etxea ikusten dira.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

YVES ROCHER FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



ATXURI TABERNA

Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

Iragar zaitez

Prest!

-en

tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com




**Alonso
Pertsianak**

Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Optica Avenida

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
SAN INAZIO 94 475 11 24



Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

1924tik Deustun

Eintoreria La Flor



Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua

Probatu herrizki.eus

ANDROID APP Google play

App Store

ERRO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO BFA

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@euskalnet.net

Matxintxu aek euskaltea

Matrikula zaitez!



Nailan

Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA

Iratxe Jimenez Bobadilla

ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia

PADI
OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932

E.P.S. 425/97

Bitxidenda Sabin Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS KM CERRAMIENTOS

Deitu eta Ikusi!!

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE

elektrizitate eta margo-lanak

2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23



Non ikusi zenuen Athleticen Kopako finala? Non Gabarra?



**Gaizka
Deustu**

Nahiz eta errealekoa izan euskal futbola babestu egin behar dela uste dut eta beraz, bai finala eta bai gabarra deustun ikusi nituen lagun athleticzaleekin.



**Lucas
Deustu**

Gabarra Botikazarreko suhitzaileren aurrean ikusi nuen lagunekin eta finala ikusteko sebillara joan ginen kuadrillakoak.



**Nagore
Santutxu**

Goizeko 10etan udaletxe aurrean geratu ginen eta bertatik ikusi genuen gabarra. Finala ikustera sebillara joan ginen kuadrilla osoa eta niri bizitzako egunik onenetakoa izan zen.



**Nahia
Zazpi kaleak**

Finala athletic hirian ikusi genuen. Gau osoa autobusean igaro ostean goizeko 10etan sebillan geunden. Gabarra udaletxe parean, Aznar eraikinaren azpian ikusi genuen.



**Ander
Deustu**

Ur motorrarekin jarraitu nuen gabarra errekatik. Finala ordea, San Mamesen ikusi nuen pantalla handien bitartez.



**Asier
Zazpi kaleak**

Gabarra Deustutik ikusi nuen lagunekin eta finala ikustera Sebillara joan ninrzen.



harkua bete herna

>> IRAKURLEEN TXOKOA

EUSKARAZKO LITERATURA EROTIKOA, BADA UMEZURTZ?

Testua: Itxaso Larramendi Elexgaray

Erotismoaz nahiko genukeen bezain eroso aritzen gara? Benetan tabu horiek apurtu dira gurean? Ez dugu zalantzan jartzen erotismoa aspaldiko partez arte adierazpen orotan agertzen zaigula, garai guztietan nahiz munduko edozein tokitan, modu ezkutuagoan bada ere. Gaurkoan, literatura erotikoa inguruan berba egingo dugu. Baina ezer baino lehenago, badugu argi zehatz-mehatz zertaz dihardugun?

Definizio zehatzen arabera, literatura erotikoa genero literarioa da eta horren baitan erotismoarekin nahiz sexuarekin lotutako testuak biltzen dira. Dena den, sarritan zaila izaten da pornografia eta erotismoa bereiztea. Esan daiteke pornografia harreman sexualen deskribapen hutsa nahiz gordina dela; erotismoan, berriz, hartu-emanak modu poetiko zein leunagoan agertzen zaizkigu. Era berean, horien arteko muga non dagoen ezartzea ez da lan erraza.

Baina gatozen gurera. Euskal literaturak badu genero honetan aurrekaririk? Historiari erreparatuz, sexu sarterik aurki dezakegu, bai; esaterako, euskarazko lehen liburu inprimatuan hain zuzen ere, Bernart Etxeparearenean. Izan ere, "Emazten Fabore (1545)" poeman bertan aipamen zuzenak agertzen dira. Alabaina, XX. mendera arte, ezin dugu esan generoa bera bere horretan landu zenik. Jon Mirande agertu zen arte, noski. Idazle emankorrek lan ugari plazaratu baitzituen erotismoa oinarri, obra ezagunen artean, "Haur besoetako (1970)": besteak beste, intzestua, adin txikikoekiko sexu harremanak zein suizidioa uztartzen dituen eleberria.

Beraz, bai, sexurako grina egon izan da euskal literaturan, baina badira nahikoak eszena bakan batzuk Euskal Herrian genero erotikoa landu edota lantzen

dela esateko? Izan ere, Katixa Agirre eta Edorta Jimenez idazleek zein Irati Majuelo literatur kritikariak umezurtzat jo dute generoa, oraindik ere arreta pizten dutelako alor hori lantzen duten liburuek. Hori bai, denak ez dira albiste txarrak izango. Batez ere, azken urteotan, emakumeen euskal literaturaren eskutik, kutsu erotikoko lanak maizago irakur ditzaiegu. Hortaz, pixkanaka-pixkanaka, aurrerapena antzeman daiteke.

Halaber, literatura erotikoa sustatzeko ahaleginak begi bistakoak dira. Horien artean, aipatzekoak: mende hasieran Txalaparta argitaletxeak kaleratutako *Literatura* bilduma edota Kaixomaitia.eus-ek Elkar Argitaletxearekin batera abian jarritako Euskarazko Kontaketa Erotikoen Lehiaketa. Egitasmoak bitartekari paregabe bilakatu dira sexu idatziaz gozatzeko,

pertsonen arteko edozein harreman afektibo eta sexuarekin lotutako gaiak askatasun osoz lantzeko edota "betiko" bikote heterosexual horiek erdigunetik aldentzeko. Areago, ekimenei esker, erotismoa irakurle gazteei ere iristeko aukera izan dugu. Horren erakusgarri Karlos Aretxabaletaren "Sex-sua" liburua, bederatzai ipuin erotikoz osatua.

Tamalez, aurrerapenak aurrerapen eta ahaleginak ahalegin, hainbat idazleren hitzetan idazkera sentzuala lantzea erronka handia da, oso zaila baita benetako pasarte beroak sortzea. Oztopo nagusien artean, euskara bera dugu. Zein terminologia erabili sexuaz jarduteko? Biologia liburuetan agertzen dena? Haur hizkeran darabilguna? "Potota" bada berotzeko moduko hitza? Agerikoa da oraindik lana egiteko daukagula, baina zeruertza, zalantza barik, hurrenago dugu.

BZIBER

TikTok sarean oinarritutako Bziber lehiaketa ospatuko da apiril honetan. Apirilaren 8tik maiatzaren 2ra bitartean izango da, 13 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketa.

Azkue fundazioak antolatutako TikTok sarean oinarritutako euskarazko lehen lehiaketa honek, gazteak eta sareak euskaraz ehuntzeko asmoa du eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren babesarekin dihardu.

Lorea Intxausti aktoreak proposatutako 4 erronkatik abiatu da lehiaketa. Astelehenero Loreak erronak ezberdinak proposatuko ditu: dantza, bitxikerik, sormena lantzeko erronka, lagunekin egitekoa.... Horrela 13 eta 16 urte bitarteko gazteek TikTok-en modu pribatuan zein publikoan euren erronkak argitaratuko dituzte. Erronka bakoitzetik irabazle bat aterako da eta maiatzaren 3an irabazle osoen izenak argitaratuko dira Bziber lehiaketako sare sozialetan eta webgunean. Saria Fnac dendetan gastatzeko 75 euroko erosteko-txartela izango da.

Lorea Intxaustiz gain, Elene Mendizabal, Nahia Sillero eta Kimetz Etxabe aktore eta tiktoklariak egongo dira erronketan parte hartzen.



Informazio gehiago:



HERRI ZURI-GORRI BAT, ITSASADARRARI SO

*Festa giroak bildu zuen hilak 11n athleticzaleen
uholdea itsasadarraren ertzean*



Testua: Xabier Badiola

1984an uretaratu zenetik 40 urte, eta sei Errege Kopako final galdu ostean, azkenean nabigatu zuen beste behin gabarrak Bilboko itsasadarra, Valverderen zuri-gorriak barruan. Goizean goizetik zain batzuk, asteazkenetik gaua eginda besteak, egunean zehar zuri-gorritz jantzi ziren itsasadarraren ertzak, hasi Getxotik eta Bilboko udaletxera arte. Errege Koparen finalaren aurretik jada hasia zen prestatzen hiria oraindik eskuetan ez, baina ia dasta zitekeen garaipenerako; bakailaoa salduta amua jaurti baino lehen? Ziur zegoen bakarra jokalariek gainean zeramaten zama zen, jokoan asko zegoela esatea oso motz geratzea litzateke.

Udaberriko eguzkiaren sargoriak atzoko zitari muzin egitea oraindik gehiago zaildu zuen; zaleak gogotsu, talde txapelduna azaldu aurretiko azken prestakuntzak aurrera zihoazen: afixak, pankartak, ikurrinak, Athleticen koloreak nonahi ikusgai. 16:30etan irten zen Getxoko Kirol Portutik 80 tonako ontzia, eta 19:00etan iritsi zen udaletxera, zentimetro bakarra ez hutsik ibilbide osoan zehar, etengabeko bandera zuri-gorri kolektiboa. Bidean milioi bat zale baino gehiagok bizi izan zuten txapeldunen festa, asko izan ziren 40 urte lehenagoko ospakizunaren eta atzokoaren arteko berdintasunak jendetzaz gain: bizkaiko traineruek lagundu

KOMEDIA MADARIKATUA DIVINA TRAGEDIA

OTSAILAREN 16tik 25era

Dramaturgia
TOMÁS AFAN MUÑOZ
Zuzendaritza
SAIOA IRIBARREN MUÑOZ

www.pabellon6.org

Antzezleak
SILVIA LARRAURI DE MIGUEL,
LUIX MITXELENA MITXELENA,
ANDREA MORA AHEDO, UXUE FUERTES VECA,
ZIGGY DOCHERTY SANCHEZ,
AITZOL VILLAHOZ PRIETO



P6
BILBO KOPAKO
COMPARTIA ZIBURU



zuten gabarra itsasadarrean zehar, baziren ontzian, Valverderen jokalariez gain, 84an txapeldun izan ziren Goiko, Manolo Delgado, Salinas anaiak, Sarabia, Miguel Sola eta beste zenbait jokalaria bererano, magia momentu hura beste behin bizitzen, garaiko alkandora zuri-gorritz jantziak gazte eta zahar. Ontzitik kanpo ere, duela 40 urte kantu eta ohiu egin zutenak ere ugari, athleticzale belaunaldi desberdinak, ilusio bakarrak elkartuak denak, aitona-amonak seme eta bilobaz inguratuak, gazte koadrilak, neska-mutil, gizon eta emakume irrintzi loriatsu bakarrean bat eginak.

Arratsaldearen argiek ilunak aise estali bazituen ere, entzute handia izan dute emakumezkoen futbol taldeak gabarra uretaratzeo eskubiderik ez izateak, futbolearen eta orokorrean kirolean emakumeek jasan behar izaten duten bigarren mailako estatusaren erakusgarri; nahiz eta, kasu honetan, Athleticen emakumeek palmaren izugarria daramaten kolkoan. Zenbait kritika ere piztu ditu ospakizuna amaitzean hiriak hartu duen itxurak; zaborra non-nahi, egunean zehar alai eta koloretsu zegoen Bilbok, zabortegi bilakatuta hasi du biharmona. 34 zabor tona jaso zituzten garbitzaileek itsasadarrean ingurutik, Nerbioi beratik bildutako 500 kiloak ere gehitzeke; ideia orokor bat izan dezagun, Santo Tomas egunean 5 tona zabor bildu ohi izaten dituzte udal garbitzaileek.

Asier Villalibre Gernikako bufaloak Bilboko Udalen balkoitik zabalduko hitzek, ospakizunaren aho-zaporea, zale euskaldun eta euskaltzaleena bereziki, goxatu zuten: "Hainbeste jende zaudete hemen, hainbeste gazte; beti esaten da guk influentzia handia dugula. Gura dizuet esan ez ahazteko inoiz Athleticen oinarri garrantzitsuenetarik

bat: hori euskara da. Ez dakizue benetan zer polita den zuei denoi euskaraz entzutea San Mamesen, Bilbon, kaletik, edonondik. Gazteei: segi euskaraz berba egiten; nagusiei: segi euskaraz irakasten. Segi dezagun gure oinarrietako bat bizitza osoan erooten. Gora Euskal Herria!".

Ahotan darabilen hizkuntza dena dela, argi gelditu zen atzokoan Athleticen herriarekiko duen gertutasuna, bata ezin dela inolaz ere bestea gabe izan, hain dira sakonak bata bestearekiko loturak. Berataratu zirenen, etxetik, lanetik, atzerritik jarraitu zutenen oroimenean luzaro iraungo duen eguna inongo dudarik gabe.





harkua bete herba

>>NUTRIZIOA

ZEIN DA KONTSULTA NUTRIZIONALERA EKARRI ZAITUEN HELBURUA?

Testua: Ainhoa Maiztegi

Lorenzoren eguzki-printzek dagoeneko agur egin digute behin baino gehiagotan azken asteotan. Beroa eta eguraldi onarekin batera dator aisialdian planak egiteko zerrenda amaigabea prestatzeko gogo. Ez dizut eskatuko zeure burua hondartzazale edo igerilekuzale finkatzeko, luze joko lukeen eztabaida litzatekeelako, baina, jakina, kresalarekiko nire maitasunak agerian uzten du zein dudan nahiago.

Azken urteotan sarri esan dut nire lanbideak behin-behinekotasun nabarmena duela, hau da, urtean zehar badaudela garai jakinak non eskaria handiagoa den. Halaber, egia da apurka-apurka denbora-langa hori gero eta gehiago urtu dela eta, espero dezagun dietista-nutrizionistaren lanbidea osasun publikoan ezinbesteko eta beharrezko lanbidetzat hartzean, are gehiago aldatzea, Osasuna ez baita pribilegio bat, **ESKUBIDEA DELAKO**.

Biztanleriaren zati handi batek nutrizionistaren lanbidea lotzen du soil-soilik pisu galera-ekin edo bi hilabete baino gehiagoz jarraitzeko ezinezkoak diren dieta zorrotzak jartzen dituen pertsonarekin. Hala eta guztiz ere, us-teak erdia ustel: zeregin klinikoa eta emozionala dira kontsultan gehien lantzen ditudanak. Horiek ez dute denborarekin zerikusirik. Izan ere, norberak ez du aukeritzen noiz detektatuko dioten bularreko minbizia (badakit irakurtzen ari zarela, animo, dena irtengo da ongi), noiz izango duen bihotzerrea, zenbaterainoko mina eragingo dion hilekoak, noiz deserregulatuko zaizkion tiroide-hormonen mailak edo noiz izango den lagunen aurrean jatearen ikara.

Arestian aipatutako behin-behinekotasunaren gaia hizpidera ekarri nahiko nuke, izan ere, badago egutegian behin-behinekotasun nabarmena duen “nitxo”-a: bikini-operazioa, hain zuzen ere. 2022ko maiatzean idatzitako artikuluan honelako esaldiak jaso nituen: “ez dugu inoren baieztapena behar gure gorputza harrotasunez eta konfiantzaz erakusteko. Izan ere, urteko sasoi berotsuenak ez dira mesfidantza sortu beharrekoaldiak”. Nahiko nuke mezuz eta testu horrek zuetako askoren gogo-bihotzak astinduko balitu, benetan. Azken batean, luzaroan gehien irauten duten emaitza-helburuetako bat izaten jarraitzen du.

Eta bai, azpimarratu dut emaitza-helburu bat dela, eta ez abizenik gabeko helburu bat. Izan ere, askotan uste dugu helburuak ezartzen dizkiogula geure buruari, baina egiaz he-zurmamitzen duguna desio bat da, prozesu baten helmugan geure burua irudikatzen azken produktua eta, bide batez esanda, hasi ere ez dena egin.

Ez da nire asmoa aztertzea zer dela-eta pertsona batek bere gorputza egokitu nahi duen dieta lodifoboaren kulturak ezarri eta zuzendutako kanon batera. Ez da hori nire asmoa, luze joko lukeelako. Askotariko arrazoiak egon litezke nahi horren azpian. Hala ere, bilaketa jakin bat dago muinean: babes, onarpena, balioespena, segurtasuna, maitasuna, arrakasta, errespetua edo maitasuna. Jakina, horrelako kasuetan nutrizionistek eta psikologoek elkarrekin lan egiten dugu tandem gisa.



harkua bete herba


Entegabeko aldaketan ari naizen aldetik, duela hilabete batzuetatik hona kontsultan honako alderdi hau txertatu dut: bereiztea zein den hasierako eskakizuna eta zein den pertsona bat kontsultara etortzeko benetako eskaera. Horretarako, pazienteak edo atletak dira, saioan elkarrekin hitz egin ahala, lortu nahiko lituzketen emaitza-helburuak (edo nahiak) betetzen dituztenak. Saioa amaitu ondoren, hasiera batean kontsultara ekarri gintuen hasierako eskaeraren laburpena egiten dugu eta, hori egin eta gero, horren guztiaren oinarrian zegoen benetako eskaera batzen dugu. Amaitzeko, hasierako helburuak jasotzen ditugu, horiek izango baitira prozesu osoan zehar emango ditugun urratsak, benetako eskarira hurbiltzeko.

Aho-korapiloa dirudi, edo baita txorakeria ere, baina "udararako argaltzeko" hasierako eskariarekin zetorren inor ere ez da joan kontsultatik helburu horrekin berberarekin: inor ere ez.

Ukaezina da sortzez edo jaiotzez ez dugula gure gorputza gorroto. Gorrotatzen ikasten dugu. Ikasitakoa desikasteko gaitasuna dugu. Dieta kulturaren irakasgaien suspenditzera animatuko zinateke?



Ainhoa Maiztegi

 @ainhoamaiztegi.nutricion



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean



ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



DANEL LAUZURIKA ERKIAGA

Tsundokeroa

LAPURRAK BERE BURUA SALTZEN DUENEOKA

Enekoitz Ramirez Lanbasek galeriaz galeria eman du bizitzaren parte bat: bai arte mundukoak, baita kartzeletakoak ere. Etakide ohia, arte salerosle ohia, lapur profesionala da egun.

Lapurrak ere ez daude krisi ekonomikoaren hatzaparretatik salbu eta, aurrera egingo badu, euskal sukaldaritza berriko jatetxe glamurosetan paloak ematen ari da Lanbas azken aldian, laugarrenez espeteratuko duten arte. Atakatik irtetzeko, kartzelara eraman berri dutenentzat lanean hastea beste erremediorik ez du izango. Hitz bitan: lapurrak bere burua saldu beharko du, bere etika eta independentzia traizionatu. Ordaindu beharreko prezioa ez da makala, gero: lapur sanoa izateari utzi, goi-esferetako lapur on eta zintzoen bandoko morroi bilakatzeko.

“Sindikatu egingo nintzen, finean. Neure burua berrasmatu. Nazkagarria bazen ere. Sekretua da zure parte egitea ahalik eta txukunen, gehiago arduratu gabe. Denok gara morroiak, nork bere koartada dauka”. Ihesbiderik gabe, abokatu bilbotar finen kontu zikinei lanbasa pasatzea dagokio protagonistari.

Dilema faltsu horretatik abiatuta, Zintzoen saldoa eleberri bikaina osatu zuen Jon Alonsok duela hamarkada bat. Gogoangarriak dira gizarte garaikide hipokritaren gaineko hausnarketak, tartean nork bere burua berrasmatzeko behar obsesiboari buruzkoak. Horrekin batera, begi zoliz erakusten digu euskal sukaldaritza modernoak sastar poltsetan gordetzen duena: gida gastronomikoen funtzionamendu saldua, turismoa sustatzeko administrazioen amarruak, jatorrizko izendapenen txantxulloak, kazetari gastronomikoen elite zuria... azken beltzean, zapore fineko zaborra.

Doinua: Haizeak bidali du



NILE ETA ERIKA

Elorri bertso-eskolako kidea

Sevillara joateko
Zelako borroka
Lehoiek irabazi
Dute errege kopa
Errekara salto egin
Ta busti arropa
Emozioa mantendu
Hori bai erronka

Apirila helduta
Zenbat aldaketa
Baina udarako dut
Maleta gordeta
Oorretako astean
Nahi dut luzaketa
Gehienontzat bi Aste
Gutxi dira eta

eidabe

ekimen kulturalak

www.eidabe.com

Jon Arrospide, 17 - 2. a - 15. dpto - Deustu



eskatu eskaini euskaraz

Zuk aukeratzen duzu

Badakizu aukeratzen duzun
hitzaren arabekoak izango
direla zure harremanak?

Bilbao

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

e//
euskaraz
BARRA // BARRA



Gure ikasleen ahotan

“Ibilbide Duala egiteak lan-munduan lehenengo urratsak ematen laguntzen dizu”



IBAI LORENZO BERASALUZE

Eibar, 20 urte

Gradua: Industria Prozesuetako Ekoteknologiako Ingeniaritza (Green Manufacturing).

Zaletasunak: Gimnasia joatea eta orokorrean kirola egitea eta ikustea.

Industria Prozesuetako Ekoteknologiako Ingeniaritza graduko 3. mailan zaude: zergatik aukeratu zenuen gradu hori eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Betidanik izan dut nahiko argi ingeniari bat egin nahi nuela. Ate ireki askotara joan nintzen eta, azkenean, Ekoteknologiako Ingeniaritza aukeratu nuen. Arrazoi nagusia industriak ingurumenean duen inpaktua murriztearen ideia erakargarria iruditu zitzaidalako izan zen. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen alde batetik jasangarritasunarekin lotutako graduen artean beraien eskaintza erakargarria iruditu zitzaidalako eta, bestetik, ikasketa ereduarengatik.

Nolakoa izan da orain arte bitzako esperientzia?

Orain arte, ona. Ikasturtean zehar, azterketa asko egiten ditugu, baina horrela ez ditugu urtarrilean azterketa finalik. Esperientzia onenak proiektuak izan dira, nahiz eta taldekideekin haserreak, tirabirak eta arazo asko egon diren.

Zer metodologia erabiltzen duzue, nolakoa da?

Metodologia asko gustatzen zait. Teoria beharrezkoa da baina, ez baduzu aplikatzen, ahaztu egiten zaizu. Gainera, eskertzen dudana beste gauza bat irakasleekin gertutasuna da, prest daude zalantza guztiak argitzeko, bai klasean bertan bai klase-orduetatik kanpo ere.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Esperientzia politenak nere ikaskideekin proiektuetan izan dira. Bertan ikaskideekin denbora asko pasatzen duzu eta zuen arteko erlazioa asko hobetzen laguntzen dizu. Hobetzeko, Galarretako campusean dauden kirol ekintzen kopurua handitzea proposatuko nuke. Donostia ondoan egoteak abantaila asko ditu baina, Arrasaten ikasle gehiago egonda, kirol txapelketa handiagoak antolatzen dira.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, DUAL ereduan. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?

Bai, Mondragon Unibertsitatea aukeratzeko beste arrazoi bat dual eredu egiteko aukera izan zen. Fagor Automation enpresan ari naiz lanean. Ni nabilen lantegian motor elektrikoak fabrikatu eta konpontzen dira. Nagusiki, ekoizpen orriak, planoak eta muntai kuadernoak egiten ibili naiz. Horrez gain, utillajeak diseinatu eta montatzen edo utillaje berriak izendatzeko tresna bat egiten ere ibili naiz.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Ba gradu osoaren zehar teoria asko ikasten da, baina askotan teoria hori guztiori ez dakigu nola aplikatu. Egia da proiektuak egiten direla, baina lanarekin ez dauka zerikusirik. Duala egiteak lan-munduan lehenengo urratsak ematen laguntzen dizu. Dualari esker, unibertsitatetik irtereakoan, graduaren titulazioaz gain, urte bateko lan esperientziarekin irtingo naiz. Nahiz eta gogorra den, nire gomendioa duala egitea da.

Etorkizunari begira zer asmo dituzu?

Ikasturtea ondo atera eta hurrengoan Erasmusean joatea da. Hortik aurrera ez daukat oso argi zer egingo dudana, baina seguruenik ikasten jarraituko dut, masterren bat egiten.